

Dantza-
sokarako
entseguetan
ari dira ▶ 7



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Asteazkena ▶ 2007-01-31 ▶ V. urtea ▶ 1.076. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Etxeberria Espainiara eramateko agindu dute

LIZARTZA ▶ Gaztearen aurkako euroagindua onartu zuen atzo Pabeko Apelazio Auzitegiak

KARGUAK ▶ Etakide izatea eta Zornotzako eta Atxondoko zuloekin zerikusia izatea egotzi diote ▶ 6



Umetxoen parte-hartzearekin amaitu dira ihoteak

LEITZA ▶ Batzuentzat gaur goizean goiz eta besteentzat atzo iluntzean, baina amaitu dira aurtengo ihoteak. Azken egunean ekitaldi ugari antolatu zituzten umeentzat. Arratsaldean, esatera-

ko, makillaje-tailerra eta kalejira egin zituzten. Ondoren, txokolata egin zuten herrian. —Argazkian, Erdi-Aroko damak, umeei txokolata banatu zieten—. **NAIARA GARZIA** ▶ 7

TOLOSA ▶

Abiba Diskojaia larunbat honetan

21:00etatik aurrera, Beotibar pilotalekuan ▶ 3

LUIS HARANBURU ▶ IDAZLEA

«Norbere burua mirestea aurpegiratzen diot herri honi»

'Josafat' lanarekin Donostia Hiriko Kutxa Saria jaso berri du ▶ 5

TOLOSA ▶

Herritarren Txartel Elektronikoa eskuragarri

Administrazioaren aurrean identifikatzea ahalbidetuko du ▶ 3

TOLOSA ▶

Irakasleak, ikasleak eta udal ordezkariak Agenda 21 bileran

Aztiker enpresak mugikortasunari buruzko txostena aurkeztu zuen ▶ 2



Aztiker enpresako kidea. i. t.

MERKATUTXOAN
IBARBURU *IREKIERA!*

- Elikadura
 - Drogeria
- Egurrezko materiala
 - Loreak...

Erakusketa
baserritar
tresnekin

Euskal Herria, 53 • IBARRA • © 943 01 99 51

AGENDA 21 ▶

Ikasleen ekarpenetatik etorkizuneko herria eraikiz

Eskolako Agenda 21 proiektuaren baitan, Laskorain, Hirukide, Samaniego eta Orixeko irakasleak eta ikasleak eta Jokin Bildarratz alkatea elkartu ziren atzo

IÑIGO TERRADILLOS

Herriko ikastetxe guztiek hartzen dute parte Eskolako Agenda 21 proiektuan eta 4 urtez geroztik ari dira lanean gai ezberdinak jorratuz: mugikortasuna, herriko parkeak, kalea bizi eta, aurtengo gaia, hondakinak. Gai bakoitzaren inguruan ikasleek aztertzen duten guztia alkateari eta udal batzordeari helarazten zaie herriko neska-mutilen beharrak, iradokizunak, eskaerak eta konpromisoak entzun dituzaten. Udal ordezkariak hausnarke-tarako denbora izan eta gero, alkateak foroari erantzuna ematen dio, idatzian azaltzen ziren puntuei buruzko xehetasunak azalduak eta burutuko diren eskaeren epeak eta bultzatuko ez diren arrazoiak emanez.

Hala, atzokoan, azken lau urteetan zehar jorratutako gaien berrikusketa egiteko elkartu ziren ikasleak, irakasleak, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Olatz Peon alkateordea. Haur parkea, bidegorria, hiribus, Zumardi Handia, Zerkausia eta Sortzez Garbia plazaren inguruan aritu ziren. Jarraipena eman asmoz, apirilean egingo dute hurrengo bilera.

Bidegorria. Gorosabelen jarri zuten bidegorria beste kale batetik igarotzea eskatu zuten eta jendeak ez duela bidegorria errespetatzen ere salatu zuten ikasleek. Bildarratz ados agertu zen arauak sortu eta errespetatzearen beharreakin. Alde Zaharra oinezko eta



Jokin Bildarratz alkatea ikasleei azalpenak ematen, atzo, Kultur Etxean. I. TERRADILLOS

txirrituz doazenez egitearen ideien inguruan ere mintzatu zen Tolosako alkatea; hala, seinaleak laster jarriko dituztela hori posible egiteko esan zuten, eta Arrameleko zubiko bidegorria Alde Zaharra-ekin laster lotuko dutela. Hala, Berazubiko atzealdea kon-

pondu eta bidegorria jarriko dutela, eta Zumardi Txikitik ere igaroko dutela azaldu zuten.

Jolas-parkeak. Herriko jolasparkeei dagokionez, txukunago egon beharko luketela azpimarratu zuten ikasleek eta Sortzez Garbia plaza nabar-

mentu nahi izan zuten Laskoraingo ikasleek, «zikinergia egoten baita». Honen aurrean, Bildarratz alkateak gaia lantzen ari direla erantzun zuten; «bertako bizilagunak ere kezatu izan dira eta bankuak kentzea ere proposatu dute horrela garbiago egon daitekeelako».

Mugikortasunari buruzko iritziak

Aztiker enpresak galdeketa bat egin zuen iaz, Tolosan Laskorain, Hirukide eta Orixeko ikasleen laguntzarekin, mugikortasunari buruz herritarrek dituzten iritziak bildu asmoz. 700 lagun ingururi galdetu, datuak bildu, eta atzo aurkeztu zituzten azterketa soziologikoren emaitzak udal ordezkari-aren, irakasleen eta ikasleen aurrean.

Eman zituzten datuen arabera, herritarren %73,9rentzat larria edo oso larria da zirku-

lazioak eragindako arazoa, eta etorkizuneko mugak jarriko dizkien Tolosan bizi nahi lukete. Hala, hirigunean autoak gutxitzeko hartu izan diren neurrietan beharrezkoenak garrantzitsuak dira. Bestalde, hiribusari buruz, erabili ez arren, hamar tolosarretik bederatzik baino gehiagok uste dute onura egin diola herriari, eta bost herritarretik hiruren ustez, autobusaren linea berriak sor-

tzeko ahalegina egin beharko luke Udalak.

Bidegorriari dagokionez, tolosar gehienek (%69,3k)uste dute egun duen ibilbidea egokia edo oso egokia dela. Segurtasunari buruz galdetean, iritziak banatuago daude: %52,6k uste dute bidegorrien segurtasuna desegokia edo oso desegokia dela. Praktikotasunaren inguruan, berriz, herritarren %67,7k uste du egokia edo oso egokia dela bidegorria. ◀

an, dena den, egia da jarrera kontua dela». 11-13 urte artekoentzat aukera gutxi dagoela herrian ere aipatu zuten Laskorain ikastolakoek. «Adin horietarako zein ekintza burutu ari gara pentsatzen, eta zuen iritzia da garrantzitsua horretarako», erantzun zien alkateak.

Zerkausia. Orixekoak Zerkausiaren inguruan mintzatu ziren. Igogailua erabiltzeko giltza beharrezkoa dela eta horri buruzko informazioak ez dagoela, pantaila erraldoi bat eta komunak jartzearen beharra helarazi zioten alkateari. Olatz Peon alkateordeak azaldu zuten komun berriak Eskolapioen lorategietan jarriko dituztela Triangulo plazakoentzat eta Zerkausiekoentzat erabilgarri izango direlarik. Pantaila erraldoiarena, bestalde, ideia ona dela adierazi zuten alkateak, eta pentsatua dutela jartzea.

Hiribus. Samaniegoko ikasleak kexu agertu ziren leku guztietara iristen ez delako hiribus, eta ordutegia luzatzea eta prezioak bere horretan mantentzea eskatu zuten. Jokin Bildarratzek pasa den urtean %30eko igoera izan zuela eta hilean 16.477 erabiltzaile izan zituela hiribusak gogorarazi zuten. Hala, autobusa bezalako zerbitzuak merkeago eskaintzeko gaizteentzat txartel berezi bat ateratzeko asmoa dutela esan zuten, eta hutsuneak badaudela eta lanean jarraitu beharra dagoela.

Zumardi Handia. Hirukideko ikasleek Zumardi Handia baztertua dagoela azaldu zuten, eta iaz beraiek abian jarritako ekimenean 500 kilo zabor bildu zituztela bertan. Halaber, komunak eta farolak jartzea ere eskatzen dute. Alkateak Zumardiko proiektu berriaz mintzatu zen; hasiberrian baino ez dagoela oraindik, baina oso polita geratuko dela azpimarratu zuten.

iragarki laburrak ▶

Pablo Gorosabel, 40
L. g. 1.º eta 7.º bulegoa
20400 TOLOSA
Telf. eta Fax: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

Alegia. Eraikuntza berriko pabilioiak salgai. Azken moduluak. 350m2tik hasita.

Anoeta. 90 m2ko etxebizitza salgai, kanpora begira eta berritu beharrekoa.

Belauntza. Bifamiliarra, 2 solairurekin eta 270 m2ko lursailarekin.

Belauntza. Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.

Berastegi. Bi solairuko pabilioia alokairuan, 700 m2 solairu bakoitzeko.

Berastegi. Familia bakarreko etxea salgai, 4.000 m2ko lursailarekin batera.

Berrobi. Behe solairuko etxebizitza. 50 m2koa. 117.200 euro.

Irura. San Migel plaza. Atikoa. 76 m2 erabilgarriak.

Irura. Eraikuntza berriko bi apartamentu salgai garaje eta trasteroarekin.

Irura. Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariekin, garajea eta trasteleku duen etxebizitza.

Tolosa. San Esteban auzunean,

kanpora begirako 100 m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.

Tolosa. Ugarran Goenan, baserria berritu beharrekoa. Hiru solairuko.

Tolosa. San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.

Tolosa. San Frantziskon apartamentu altua salgai. Logela bakarra. Guztia eraberritua. Ikuspegi ederrak.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoa alokairuan.

Tolosa. Zabalaretta, 3 logelako etxebizitza salgai. Egongela, sukaldia, bainugela eta komunarekin.

Tolosa. San Frantziskon etxebizitza salgai. 90 m2koa, eraberritua, oso eguzkitsua.

Tolosa. Belate. Trasteleku berriak, ordaintzeko erreztasunekin. 9.480 eurotik aurrera.

Tolosa. Maituna zaharra. 15 garaje berri eta itxiak, 30m2tik aurrera.

Karga jasogailuekin sartzeko. Eraikitzeko.

AISIA ▶

Abiba Diskojaia dator jendea dantzari ipintzera

Larunbat honetan izango da doan, 21:00etatik aurrera, Beotibar pilotalekuan



Abiba Diskojaia festako irudietako bat. HITZA

E. EZEIZA

Abiba Diskojaia Tolosan izango da berriro. Bigarren festa hau larunbat honetan izango da, otsailaren 3an, eta sarrera doan izango da. Beotibar pilotalekuan izango da jaialdia, 21:00etan hasi eta goizaldeko 05:00ak arte. Musika, zozketak... izango dira dantzatoki mugikor honetan. Adin guztietako jendeak har dezake parte ekitaldian, baina neurri bezala, «18 urtetik beherakoei ez zaie alkoholik salduko». Bestalde, Tolosaldeko gainontzeko herritarrak etorri ahal izateko autobus zerbitzu berezia antolatu du Udalak.

Ana Fernandez ekitaldiaren antolatzaileak azaldu zuenez, «kantu oso komertzialak eta dantzagarriak ipintzen dituzte Peio eta Luis musika jartzaileak». Bestetik, hiru dantzari izaten dira taula gainean koreografia ezberdinak dantzatzeko. Honez gain, «sms bidezko jaia» ere egiten dute. Hala, bertan daudenek mugikorrek zorbaki batera bidali ditzakete mezuak, edo banatzen diren papertxoetan idatzi. Honela, hauek saioan zehar irakurtzen joango dira. Bestalde, argazkiak ere ateratzen dituzte antolatzaileek jaialdian zehar, eta hauek pilotalekuan kokatuta egongo den pantaila erraldoi batean ikusi ahal izango dituzte.

Jaialdi hau Abiba Diskojaia eta Tolosako Udalaren arteko egitasmo bat da. Horregatik, bigarren honen laguntzaz, doan izango da sarrera. Gainera, i-podak, kamisetak eta txapelak zozketatuko dira gonbidapenak dituztenen artean. Hauek, tabernetan, kultur Etxean edo Beotibarreko

sarreran bertan eskuratu ahal izango dira. Ana Fernandezek esanetan, «larunbat honetako ongi irtenez gero hilabetean behin egingo da horrelako jaialdi bat». Urte zaharrekoak arrakasta handia izan ez bazuen ere, oraingoan jende gehiago bilduko dela uste dute antolatzaileek.

AUTOBUSAK ▶

Tolosara bertaratzeko nahiz inguruko herrietara joateko autobus zerbitzu berezia izango da. Tolosaldea Bus-en eta TSSren joan-etorriko txartelak euro bat kostako dira.

TOLOSARA JOATEKO 22:00 eta 00:00etan.

Berastegi - Elduain - Eldua - Berrobi - Ibarra - Tolosa - San Frantzisko.

22:45ean. Alegi - Amezketa - Alegi - Ikaztegieta - Tolosa - San Frantzisko.

23:00, 00:00, 01:00,

02:00, 03:00 eta

04:00etan. Asteasu - Zizurkil - Villabona - Irura - Anoeta - Tolosa.

TOLOSATIK KANPORA

00:30, 02:00 eta

03:30ean. Tolosa (San frantzisko) - Iurre - Amarotz - Alegi - Amezketa - Ikaztegieta.

01:00, 02:30 eta

04:00etan. Tolosa (San frantzisko) - Iurre -

Amarotz - Ibarra - Berrobi - Eldua - Elduain - Berastegi.

23:30, 00:30, 01:30,

02:30, 03:30 eta

04:30ean. Tolosa - Anoeta - Irura - Villabona - Zizurkil - Asteasu.

TEKNOLOGIA BERRIAK ▶



Xabier Telleria espediente kudeatzailea, atzo aurkezpenean, HTEa nola erabili erakusten. E. EZEIZA

Eskuragarri da jada Herritarren Txartel Elektronikoa berria

Administrazioarekiko harremanak erosoagoak izatea du helburu; KZgunean eskura daitezke dohain, gaurtik aurrera

ESTI EZEIZA

Kalean da Herritarren Txartel Elektronikoa. Atzo aurkeztu zuten KZgunean herritarren esku erabat doan jarriko duten tresna. Hau, Internet bidez administrazioaren aurrean identifikatzeko «baliagarri, seguru eta fidagarri» bezala deskribatzen dute arduradunek.

Jokin Bildarratz alkateak txartel digitalaren aurkezpena azaldu zuen bezala, «hasiera puntu bat da, administrazioarekin ahalik eta erosoan sentitzeke herritarrak».

2002an jarri zuen martxan egitasmo hau Izenpe, ziurtapen eta zerbitzu enpresak. HTEren hainbat udal-izapide egin ahal izango dituzte tolosarrek www.tolosakoudala.net webgunean. Honez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak www.gipuzkoa.net helbidean eskaintzen dituen zerbitzu telematikotan

sartzeko ere erabili ahal izango dute. Xabier Telleria espediente kudeatzaileak agertu zuenez atzo, «oraingoz kontsultetarako bakarrik erabili ahal izango da txartela, baina gerora, Udalarekiko tramitazioetarako ere balio izango du. Eta honek, balio legala izango du, horregatik, erabili ahal izateko pasahitza sartu beharko dute txartelaren jabeek».

Txartela nola eskuratu

HTEa Tolosako KZgunean doan eska daiteke. Halaber, txartela jasotzeaz gain hau erabiltzen ikasteko eskolak ere

har ditzakete interesatuek. Dena den, txartela baliagarri izateko eta erabili ahal izateko ezinbestekoa da irakurgailu bat izatea. Zenbait zerbitzu publikok, horien artean KZguneak, eskaintzen dute beren ekipotan txartelak irakurtzeko aukera. Beste bide bat izan daiteke norbera bere irakurlearen jabe egitea merkatuan.

Aurkezpen kanpaina hau dela eta, Tolosako Udalak 50 irakurgailu banatuko ditu dohain, txartela eskatzen duten lehendabiziko 50en artean. Honen harira, etxe bakoitzetik bakarrik eskuratu ahal izango du irakurgailua.

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Betaurrekoak. Gurea zinemaren betaurreko batzuk agertu dira. Hauek ikastolako idazkaritzan daude. Telefonoa: 943 69 23 21.

SALGAI

Autoa. Seat Ibiza. Bost urte. 75.000 kilometro. Interesatuek deitu 665 70 82 08ra.
Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko llantaketa sapaia. 14.000 euro. Telefono zenbakia: 943 65 41 43.

ALOKAIRUA

Pisua. Leku berrin, 60 m2-ko pisua alokatzen dut. Egongela, bainugela, sukalde, eta bi logela. Interesatuek deitu 679 20 14 60 telefono zenbakira.

LANA

Gidariak. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Interesatuek deitu 943 44 48 66ra.

Harreragileak. Erakunde publikoetarako harreragileak eta laguntzaileak behar dira. Deitu 943 44 48 66ra.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Zer behar du izan zuretzat Inauterietako mozerro on batek? Sartu Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako webgunean eta eman zure iritzia.

LEITZA ▶ IHOTEAK



Pailazoak. Atzo hirukote celebre baten bisita jaso zuten herriko umeek, Popi, Zarratrako eta Fer pailazoak herriko zineman izan baitziren eta aretoa erabat bete zen. N. GARZIA



Koloreen garrantzia. Ihoteetan koloreak izan ohi dira nagusi. N. GARZIA



Mozorroak. Umeek mozzorro ugari aukeratu zituzten: sorginak, cowboy-ak, erregeak.... N. GARZIA

Umeen ekitaldiekin amaitu dira ihoteak

Herriko txikientzako ekitaldi ugari antolatu zituzten azken egunerako, pailazoak eta makillaje tailerra, besteak beste

NAIARA GARZIA

Amaitu dira ihoteak eta urtero legez, azkeneko egunean umeek gozatzeko aukera ezin hobea izan zuten.

Erasote auzoko baserrietara eskean joan zirenak izan ziren goiztiarrenak. Festak baserrie-

tan jarraitzen zuen bitartean, 11:30ean zinema herriko txiki-txoez bete zen, Popi, Zarratrako eta Fer pailazoak bertan izan baitziren.

Arratsaldean ihoteak eta koloreak elkartzeko aukera ezin hobea izan zuten umeek, makillaje tailerrean. Aurpegiak ko-

lore biziz apaindu ondoren kalejira egin zuten. Umeen festa plazan amaitu zen, buruhandi, trikitilari eta abarrekin.

Gauean, Gau-Bela taldearen dantzaldiaren ondoren, Incansables txarangak ihoteak agurtu zituen. Hala ere, azkeneko gaua goizaldera arte luzatu da.



Herriko inguruetakoko hainbat baserrian ihote-festa zabalduz

Ihoteetan, urteko beste garaietan ez bezala, festa herriko mugatik harantz zabaltzen dute, baserrietara ere iristen baita. Astelehen goizean eskera goiz abiatu ziren eta eguna Gorritzaran, Arkixkil, Sakulu eta Errekan eman zuten. Elurra eta izotza atzean utzi eta gaueko 21:00ak aldera iritsi ziren Harri-Gain etxera. Asteartean, berriz, Erasoten izan ziren. HITZA



Erdi-Aroko txokolategileak. Umeentzako txokolatea Erdi-Aroko dama hauek prestatu zuten. N. GARZIA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LUIS HARANBURU ▶ IDAZLEA

«Draman kezka bat erakusten dut: nazionalismoari kritika bat»

‘Josafat’ antzezlanarekin Donostia Hiriko Kutxa Literatur Saria jasozuen joan den asteburuan

NEREA URBIZU

Josafat izan da Luis Haranburu Altunak bere azken antzerki sarituari eman dion izenburua (Alegia, 1947). Donostia Hiria Kutxa Literatur Saria eskuratu berri du nazionalismoa, besteak beste, kritikatzeko duen lan honekin.

Zertan oinarritu zara ‘Josafat’ idazteko?

Idea aspaldi nuen buruan, euskaldunen panteoi moduko bat egitekoa. Epaietaren irudi hori eman nahi nuen, eta azkenean atera da. Ni bibliazalea naiz eta oso adierazgarria egiten zitzaidan dramatikoki epaietaren kontu hau idaztea.

Antzerkia, ipuina, nobela eta ontseguak egin dituzu. Zerekin sentitzen zara erosoan?

Desberdinak dira. Niretzat, dena dela antzerkia oso formato eroso da, baina egia da ere nobelak antzerkiak ematen ez duena ematen duela. Entseguak kritikak eta analisisia, beste lan mota bat egiteko aukerak ematen ditu. Poesia, adibidez, inoiz egin ez dudana da: irakurleak naiz, baina ez dut olerki lanik inoiz egin.

Pertsonaia errealeak eta mitologikoak. Nola lotu dituzu?

Josafat drama bat da: azken epaiketa irudikatzen du. Gune bibliko batean dago girotua eta judizio hau Josafat zelaian egiten da. Epaiketa honetan 19 euskaldun daude, eta bi pertsonaia mitologiko: Mari eta greziar mitologiako Narziso.

Euskaldunen artean zelan aurki ditzakegu?

Esaterako Xaho, Axular, Larra-mendi, Barandiaran, Garibai,

ETAko mutil bat, Santa Kruz apaiza... San Miguel ingerua adibidez epaiketa kudeatzen duena da eta kontu hauetan jakitun den Dante Alighieriren laguntza jasotzen du.

Zer lantzen duzu ‘Josafat’ antzerkian?

Esan bezala, azken epaiketa da eta euskaldunak bereziki nora joango diren erabaki behar da. Noski, epaiketa hau ez da bate-re ohikoa, eta norberak nolabait ere bere deskargua, buruaren zuriketa egiten du. Horren arabera bakoitza joaten da egokitzen epaietaren eskema horretan. Taldetxoak sortzen dira: zerutarrena, infernu-koena edo zigortuena eta arbasokoena; literarioak bilduko dituen dena da, azkenean ez dela inor ere ohiko zerura joaten, ez baitago zerurik.

Zelan da Mariren papera drama honetan?

San Miguel ingeruak Mariri eta Hirikori gomendatzen die berriro lurreratzeko eta hasteko gizartearen abiapuntu izaten: mundua berriro martxan jartzeko enkargua jasotzen dute, hain zuzen.

Zelan izan da zure asmoa libururu honekin?

Drama osoan zehar nire aldetik kezka bat erakusten dut: nazionalismoari buruzko kritika bat, nolabait esatearren, egiten dut. Esanez inportantea ez dela taldea, edo nazioa, edo herria, baizik eta pertsonak, euskaldunak. Euskaldunak dira inportanteak Euskal Herriaren gainetik.

Baina ez indibidualismoari begira.

Herri maite honi aurpegiatzen diot nartzisismoan aritzea, hau da, norberaren buruari lausengu egiten, norbere burua miresten jarraitzen du, eta bitartean munduak aurrera egiten du, gure gizartearen hainbat arazo daude... Azken batean, nartzisismo horretatik pixka bat gizakia irtekeko.

Zaila izango da hau guztia antzerki batean adieraztea.

Ez dut uste zaila izango denik. 19 aktore behar dira; askotxo, baina aurkezterakoan beti bezala libreto bat egiten dut eta oholtza gainera ez da horrela eraman beharrik: moldaketa batzuk egin beharko dituzte, nik egindakoa abiapuntua izango litzateke. Gipuzkoako talde baten bat hasi da antzez-lana irakurtzen, baina Tolosaldean ez.

Zer suposatu du zuretzat sari honek?

Saria: batetik dirua. Ondo etortzen da, euskal idazleen egoera ikusita oso ondo dator. Bestetik, urte asko daramatzat idazten eta aspaldi honetan neure burua nahiko zokoratua ikusten dut arrazoi ezberdengatik, eta autoestima arazoak izaten dituzte idazleek bide erdian: horretan ikusi dut neure burua. Sari honetan berpizkunde arrazoi bat ikusi dut, bizirik sentitzearen arrazoi. Gogorra da, baina horrela sentituz gogorria dut.



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Betiko janaria beste modu batera

eta erraz prestatzeko



liburua
DOAN!



Otsailak 3, larunbata,
kartilla + 1. kupoa

berria rekin



Babeslea
Ligandiarren Fero Mitologia

1. ZURE KARTILLA ESKURATU

2. KUPOIAK ITSATSU

Otsailaren 3tik aurrera, egunero kupoiak argitaratuko dira BERRIAN, guztira 14.

3. KARTILLA OSATZEAN, KIOSKORA ERAMAN

eta DOAN jasoko duzu liburua.

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

NARTZISISMOA

«Herri maite honi aurpegiatzen diot nartzisismoan aritzea, norbere burua miresten jarraitzea»

BERASTEGI ▶

Podologoaren bisitarako izen-ematea

Otsailaren 3an —larunbata— podologoaren bisita izango da. Hori dela-eta interesaturik dagoenak alde aurretik eman beharko du izena Gaztainondo elkartean edo bestela honako telefono zenbaki honetara deituta: 943 683202.

IBARRA ▶

Santa Agedako entseguak gaur eta bihar

Ibarrako Hauspoa Kultur elkarteak Santa Ageda eskea antolatuta du otsailaren 4rako. Egun horretan kantuan aterako direnek entseguetara joan daitezela gomendatzen da. Lehen entsegua atzo izan arren, bihar eta etzi ere entseguak izango dira. Interesaturik daudenak, 20:00etan elkartuko dira udaletxearen azpian.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800

- ▶ Orendain. Medikua: 655595

- ▶ Oresa. Medikua: 682228

- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536

- ▶ Gurutze Gorria: 674888

- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970

- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitza autobus.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besteriak.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Etxeberria Espainiaratzeko agindu du Pabeko Auzitegiak

Gazte lizartzarra eta Aritz Larrinagaren aurkako euroagindua onartu zuen atzo Pabeko Apelazio Auzitegiak; hala, bi gazteak Espainiara eramango dituzte

ERREDAKZIOA

Atzo goizean erabaki behar zuten Pabeko Auzitegiak Gari-koitx Etxeberria lizartzarra eta Aritz Larrinaga Tolosako espetxean mantendu ala Espainiara eramango zituen. Pabeko Apelazio Auzitegiak, fiskaltzaren eskaerari jaramon egin dio eta espainiar polizia esku uztea onartu du azkenean. Hau da, bi gazteen kontrako euroagindua onartu du eta prokuradorearen eskaerarekin bat eginez,

Espainiako Justiziaren esku geratu dira Etxeberria eta Larrinaga.

Etxeberria eta Larrinaga urtarrilaren 9an Azkainen atxilotu zituzten Frantzia eta Espainiako polizi operazio bateratuaren bitartez, etakideak izatea egotzita. Era berean, egun batzuk lehenago Zornotzuan eta Atxondon aurkitu zituzten zuloekin zerikusia izatea leporatu zieten. Atxilotetako unean arma bat atzeman zieten arren, ez auzipetzea era-

baki zuen Frantziak, hartara Espainiaren esku lehenago uzteko. Ez ohiko prozedura jarraituz, justizia frantsesak estatu frantsesean ez epaitzea onartu zuen, hori gertatzen den lehen aldia bilakatuz.

Hilaren 16an egin behar zuten epaiketa Etxeberria eta Larrinagari, baina «dokumentu ofizialen faltagatik» hurrengo astera arte atzeratu zuten auzi saioa.

Yolanda Molina abokatuak bi gazteen kontrako auzian

hainbat irregulartasun izan direla salatu du, besteak beste, atxilotu eta gero eman zituela Espainiako Auzitegi Nazionalak bi gazteen kontrako euroaginduak. Hori dela eta, «prozedura hori ez dela legezkoa» eta «Schengeneko akordioen baitan biak sei orduren buruan asko utzi behar zitezela» adierazi du Molinak.

Yolanda Molinak abokatuak Pabeko Auzitegiaren erabakia-ri helegitea aurkeztuko diola jakinarazi du.

JAIME EGUZKITZA ▶ GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLAKO IRAKASLEA

«Teknologia berrien eraginez GPSek iparrorratza ordezkatu dute»

Jaime Eguzkitzak GPSaren inguruan mintzatuko da gaur 18:30ean Kultur Etxean

MADDI SOROA

Jaime Eguzkitzak (Donostia, 1957) eskia irakasten dihardu Gipuzkoako Goi Mendi Eskolan. GPSa ezagutu zuenetik, ordea, bere mende erori dela aitortu du. Harrezkero, hitzaldi, ikastaro eta tailerrak eskaintzen ari da. Gaur 18:30ean hitzaldia emango du Ibarako Kultur Etxean.

Hasteko, esperotako galdera, zer da GPSa?

Eskuan sartzen den tamaina txikiko aparato mugikorra da eta helburu nagusia non zauden jakitea da. Informazio asko ematen du, non zauden, zein abiaduratan zoazen, nora zoazen, nondik etorri zaren...

Zertarako erabiltzen da?

Funtzio asko izan arren bi gauza nagusitarako erabiltzen da. Batetik, lurreko puntuak markatuz eta koordenaden bitartez, zuk nahi duzun informazioa gordetzen du, non zauden, esaterako. Bestetik, puntu batera joateko egin duzun bidea gordetzen du, atzeko bidea esaten zaiona. Barbantxok ogi zatiekin egiten zuen bezala.

Onddo bila joateko ere erabiltzen omen du jendeak.

Mendian ibiltzen den jende askok erabiltzen du, perretxiko

bila doazenez, ehiztariek, mendizaleek baina baita arrantzaleek edota auto gidariek ere.

Nondik atera da horrelako trikimailua?

Gainontzeko antzeko aparatuak bezala, Amerikako Estatu Batuetako militarrentzat sortua izan da GPSa. Sateliteak alderatzen dituzte eta seinalearen jabe dira, nahi dutenean jarri eta kentzeko. Golfoko Gerran gertatu zen bezala, seinalea kendu egin zuten eta galdutako asko izan zen itsasoan.

GPSa dutenak kontrolatuta daude beraz?

Ez, ez. Ez du zerikusirik. GPSaren sistema beraiena da baina haiek beste uhin batzuetan dabilitza.

Merkatuan nolako harrera izan du?

Hasiera batean marinelak izan ziren eroslerik arruntenak itsasoko nabigazioan erabiltzeko eta ondoren mendizaleak hasi ziren. Egun, ordea, oso zabaldurik dago merkatuan. Autoek jada nabigatzaile izenarekin GPS txertatuak dakarte. **Iparrorratzaren ordezkatzalea litzateke?**

Teknologia berrien eraginez eta GPSak iparrorratza ordezkatu du. Hala ere, beti daude



HITZA

erromantikokoak direnak eta iparrorratza erabiltzen jarraitzen dutenak. Iparrorratza erabiltzeko, ordea, gauza jakin batzuk ezagutu behar dituzu, altitudea, mapen irakurketa... Iparrorratzak norabidea adierazten du baina GPSak informazio zehatzagoa eta osoagoa ematen ditu.

Orientatzeko senarik ez dutenen irtenbidea izan al da?

Orientatzeko senarik ez duen jendearentzat irtenbidea izan da neurri handi batean, hala ere, erabilpena ez da hain erraza.

Eta alderantziz? Ez al du GPSak jendearen orientatzeko sena zapuztu?

Baliteke hori horrela izatea. Jendeak konfidantza handia hartzen du aparailuarengan baina pilarik edo koberturarik gabe geratzen direnean zer egin ez dakitela aurkitzen dira. **Zer du alde eta kontra?**

Non zauden esaten dizu, joan nahi duzun tokira eramaten zaitu eta egin duzun bidea adierazten dizu. Gure ezagutza, ordea, aparailuaren esku uzten dugu askotan konfidantza gehiegi emanez. ◀

ANOETA ▶ KULTURA

Tradizioari omenaldia

Kaldereroen eguneko dantza-sokarako prestaketa lanak burutzen ari dira



Amaieur Luluaga aurrekularia eta Ines Urkola atzeskularia Edurkan egindako entsegetako batean. HITZA

IMANOL GARCIA

Ohitura zaharrak mantendu behar dira eta oso ondo iruditzen zait dantza-soka berreskuratzea». Amaieur Luluagaren hitzak dira. 14 urte ditu eta aurtengo dantza-sokan aurrekulari bezala ariko da. Hirugarren urtez hartuko du parte dantza-sokan. Iaz estreinakoz aritu behar zen aurrekulari moduan, baina egun batzuk lehenago mina hartu zuen hankan eta azkenean ezin izan zuen parte hartu.

Luluagarekin batera protagonista izango du Ines Urkolak. 48 urte ditu eta atzeskulari ariko da. Emakumeen taldeak herriko plazan bere emanaldia eskaintzen duenean, Luluagak eta Urkolak egin beharko dute dantza gehien. «Gazte hauek mundialak dira. Honi denbora eskaintzea merezi du», dio atzeskulariak eta bere taldeki-gaztearen hitzak errepikatzen ditu: «Ohiturak berreskuratzea egin behar dira».

Anoetarrok Auzolanean herri plataformako Kultura taldeak orain bi urte Anoetan egiten zen ohitura zaharra berreskuratzen hasi ziren. Aurtengoa hirugarren urtea izango da jarraian. Ohi denez, kaldereroen egunean dantzatuko dute, hau da, otsailaren 10ean. «Gero eta lagun gehiago hartzen ari da parte ekitaldian», dio antolatzailer lanetan ari den Gorka Otxoa-Aizpuruak. 2005ean 65 dantzari elkartu baziren, iaz 85ek aritu ziren dantzan eta



Emakumeek iaz dantza-sokaren saioa egin zuteneko irudia. HITZA

aurren 96k eman dute izena. Dantzariak txistulariak eta trikitilariak gehitu behar zaizkie eta baita Kuku elkartearen bazkaria prestatzen ariko direnak.

Giro ona

Ekitaldia goizeko bederatziak inguruan hasiko da. Dantzariak eta musikariak osatutako taldeak, aurretik zehaztutakoak, orduan abiatuko dira. Batzuk Hernialde aldera dauden baserriak bisitatuko dituzte. Beserriak Alkiza eta Zizurkil aldera daudenak. Talde bakoitzak hamar baserri ingurutik pasako ditu. Atari bakoitzean azeri dantza, arin-arina eta fandango dantzatu eta bertso bat kantatzen dute, baserri bakoitzari berea, Gazte Asanbladako kideek idatzitakoa. Bertsoa

abestu ondoren, pergamino batean ematen diete baserrikoiei.

«Harrera oso ona izaten dugu baserrietan», dio Otxoa-Aizpuruak. «Aurretik abisatu egiten diegu, norbait bertan egoteko. Gustura ikusten dute eta hamaiketakoak-eta ematen dizkigute. Horrelako koadrila bat bere atari aurrean ikusteak asko poztzen die». Urkolak giro ona azpimarratzen du. «Gazteak hasi ziren dantza-soka berriari antolatzen eta beraiek galdetu ziguten helduei parte hartzeko. Nik asko disfrutatzen dut eta ez da ezberdintasunik egiten adin kontuetan».

Baserrietatik jaitsi ondoren, dantza-soka saioa egingo dute bazkaldu aurretik. Aurren gizonen txanda da. Kuku elkartearen bazkaldu ondoren,

arratsaldeko dantza-soka emakumezkoek egingo dute. Bi saio horietan protagonismoa aurrekulariak eta atzeskulariak dute. Bai Luluagak eta bai Urkolak ere ondo prestatuta ikusten dute bere burua. Luluaga iaz ere prestatu zen, berraz errezagoa egin zaio aurtengoa. Urkolak koinatarekin jardun du entseguak egiten, ia egunero. Hilabete geldirik egon behar izan du bihurritu batengatik eta Eguberrien ondoren denbora gehiagor aritu behar izan du prestaketan.

Dantza-sokaren saioaren ondoren erromeria izango da, taloen postu eta guzti. Eguna amaitzeko Gaztetxean festa antolatuko dute. Prestaketa lanak burutzen ari dira eta, esaterako, etzi, 19:00etan, entsegu orokorra egingo dute Edurkan.

ADUNA ▶

Laburmetraien gaua, etzi Asvinenean

Asvinenea arte eskenikoen zentroan laburmetraien gaua antolatuko dute etzi gauerako. *Urrezko laburmetraiak* izena jarri diote emanaldiari.

ANOETA ▶

Tutorearen bisita izango dute bihar KZgunean

Tutorearen bisita izango dute bihar Anoetako KZgunean. 16:00etatik 20:00etara egongo da eta 17:00etatik 19:00etara mintegia emango du, *Seguritatea eta babestekotasuna* izenekoa. Interneta erabiltzeko ekartzen dituen arriskuak eta prebentzio-neurriak ezagutzeko balioko du mintegia.

ANOETA ▶

Entsegua Santa Ageda bezperan ateratzeko

Santa Ageda bezperan, igande honetan, herritarrek kantari aterako dira goiz eta arratsaldean. Entsegua egingo dute etzi, ostirala, 20:00etan Ikastolan.

ZIZURKIL ▶

Izen-abizenak euskal grafiara aldatzeko aukera

Zizurkilgo Udalak izen-abizenak euskal grafiara aldatzeko aukera ematen du. Horretarako, interesatuek Aurrera Plazako bulegoetan ondoko agiriak aurkeztu behar dituzte: errolda agiria (bertan egin daiteke), jaiotza agiria (bertan egin daiteke), nortasun agiriaren fotokopia eta familia liburua.

ZIZURKIL ▶

Makalaren saioa larunbatean Aurreran

Makala musika jartzailearen saioa entzuteko aukera izango da Zizurkilgo Aurrera tabernan, larunbatean. Bertan, argitaratu berri duen diskoa aurkeztuko du: *Boom Shaka Laka*. Saioa 00:00etan hasiko da eta sarrera doakoa da.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko urtarrilaren 31, asteazkena ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez  arratsaldez  beroena **10** hotzena **6**

BIHARKO EGURALDIA goizez  arratsaldez 

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (salbatazkatzen argitzeko, harpidedun egileko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Santa Ageda bezperarako Santa Ageda Eskea antolatuta du Hauspoa elkarteak. Entseguak gaur eta bihar izango dira 20:00etan udaletxe azpian.

Tolosa. Arpegi taldearen Ostiral Meheko jaialdirako sarrerak salgai Cantabrico, Triangulo eta Meson Atodon.

Tolosa. AHT eta eskualdeko harrobiak: Txikizioa gelditu mahai ingurua izango da Kultur Etxean 19:30etik aurrera.

Berastegi. Lurdes Arizturruri Onkologiko Institutuko doktoreak bularretako minbiziaz hitzaldia emango du Muñagorri eskolan 16:00etan. Gaiak: arrazoiak, tratamenduak, prebentzioa, garaiak detektatzearen garrantzia, ...

Tolosa. Apeaderoan gelditzen ez diren treni buruzko bilera informatiboa izango da udaletxean 20:15ean.

Ibarra. GPSaren erabileraren inguruko hitzaldia Kultur Etxean 18:30ean Jaime Eguzkitza Gipuzkoako Goi Mendi Eskolako irakaslearen eskutik.

Ibarra. Aukeran dantza taldearen Bideak ikuskizuna izango da Belabietako kiroldegian 22:00etan, Uzturpe ikastolako Kultur Astearen baitan. Sarrerak salgai ikastolan, Zubiaurren, Karlutzen, Denaken, Rakun eta Orbelan helduentzat 10 euro eta 16 urtetik beherakoek 5 euro.

Tolosa. Otsailaren 3an, larunbata, Milakabilakak herritarren eskubideei errespetoa eskatzeko Bilbon antolatuta duen manifestazioa joateko autobusa antolatuta du ezker abertzaleak, 15:00etan San Frantziskotik. Izen-ematea, ohiko tokietan.

Tolosa. Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketan parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete Aranburun, ostirala baino lehen.

Anoeta. Anoetako aizkolariak eskualdeko aizkolarien arteko apustua antolatuta nahi dute bi kanardiko eta 5 oin-biko enbor moztuz, banaka edo binaka. Izen-ematea, 943 651497 telefonoan.



Yolanda Arrietarekin idazle lanetan

TOLOSA ▶ Bigarren urtea da. Samaniego eskolako 4. mailako ikasleek idazketa tailerra jasotzen dutela Yolanda Arrieta idazlearen eskutik. Idazteko gogoia piztu nahi dute tailer honen bitartez, idazten «gozatzeo aukera dutela» irakatsiz. Horretarako astero, 6 saio denetara, idazlea gelan izaten dute, testu mota desberdinak aitxaki har-

tuta, ipuin, olerki edo aho-korapilo jolasean. Joan den asteartean, hilaren 16an, bisitari bereziak izan zituzten eskolan, ETB kateko Post-Data saioak, hain zuzen ere. Izan ere arduradunen esanetan, «Arrietaren ibilbideak merezi du horrelako miresmenik eta zer hobe lanean grabatzea baino, haurrekin, bere saltsan». HITZA

ERAKUSKETAK

Tolosa. Elpuentea (lehen Carlos Puente de Ambrosio) artistaren pintura eta eskultura erakusketa ikusgai, Aranburu jauregian, astelehenean eta jaiegunetan izan ezik.

Tolosa. Emakumeen aurkako indarkeriarik ez izeneko erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian, otsailaren 24ra arte.

Alegia. Isabel Mujika tolosarraren margolanak Alegiko jubilatuen taberman izango dira ikusgai, otsailaren 12ra arte.

Ibarra. Kurdistan, itzaleko herrialdea argazki erakusketa izango da ikusgai Kultur Etxean, Uzturpe Ikastolaren Kultur Astearen barruan, ostiralera bitarte.

ZINEMA

Alegia. Zang Yimou txinatararen *La Casa de las Degas Voladoras* filma izango da ikusgai, Gaztebixean, 21:30etik aurrera. Aberatsei lapurtuz dirua txiroei ematen dien pertsona baten istorioa.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Lekunberri. Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112
Tolosa. Etxebeite, J.M. Gemikako arbola, 3. 943 651040.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
 20:00-21:00. Iraulituhinak.
 21:00-23:00. Bide okerretik.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Haitez Jauregi Aristi.
 Gaur 3 urte. Zorionak eta ondo pasa familiarren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...